

ESKOLA ERAKUNTZA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZA BIDEGURUTZEAN

Jaione Apalategi

RESUMEN

El tema que presentamos aquí bajo el título: "LA ENCRUCIJADA ENTRE ORGANIZACIÓN ESCOLAR Y ENSEÑANZA VASCA", es tan sólo, parte de un capítulo más extenso, que a su vez se engloba dentro del programa de nuestra tesis doctoral.

El "gráfico 1", es la síntesis, muy comprimida, de la preocupación que ha supuesto desarrollar un esfuerzo continuado de autoanálisis y de observación científica, por los principios que rigen la Educación, en general, y la enseñanza vasca, en particular, en su relación con la teoría de la Organización escolar.

A toda Organización escolar, le son inherentes, lo que hemos denominado: condiciones previas; unas de carácter interno, que serán las referidas al "entorno tecnológico" y otras de carácter externo, las relacionadas con el "entorno cultural". Es imprescindible, analizar e integrar todas esas variables, como garantes del discurso científico, que debe de mediar, entre la enseñanza y su organización.


En esta exposición, pues, se incluye y desarrolla, parte de un "modelo" sencillo pero preciso, que serviría de instrumento -o- guía, fundamental, para diagnosticar y planificar los centros educativos, así como para, reconstruir, la tan desasistida teoría y práctica educativa vascas, labor esta, a realizar, por todos los sectores implicados en el devenir de la enseñanza vasca comunidad científica, administración educativa, centros docentes y sociedad vasca en general.

ESKOLA ERAKUNTZA ETA EUSKAL IRAKASKUNTZA BIDEGURUTZEAN

AURREBALDINTZAK

Ereduak eredu, eskola erakuntza bat aurrera eramatea, zenbait baldintzaz arduratzea eta tokian tokiko beharretara moldatzea suposatzen du.

Aldez aurretik, grafiko baten bidez aztertu behar den guztiaren ekarpena eskeiniko dugu:



(1. grafikoa)

Eskuartean darabilgun Eusko Ikaskuntza antolaturiko XII Kongresu honetako gaien barne "Euskal Ikaskuntza Hizkuntza Sarean", guk dakargun lanaren kokapena egokitzearen, hau da, "KOMUNIKAZIO" moduan aurkeztu beharretako lan hau, era honetako egitura bati moldatzeko, agertu dugun (1. grafiko)aren atal bat bakarrik azalduko dugu, Eskola Erakuntza eta Euskal Irakaskuntzaren artean dagoen "kanpo baldintzaren" multzoa deritzoguna hain zuzen ere.

I.I. ESKOLA ERAKUNTZAREN KULTURA INGURUNEA: GIZASISTEMA

Nahi ta nahiez, eskola erakuntza aipatzea, eskolaren eremua aztertzea eramaten gaitu. Eskola erakuntza ikuspegiaren beharra, "gizarteak" eskolak bere gain erartzetik, sortutiko premiak dakar, eta orokorrean bere eginkizuna, egitarauak administratzeko eta eusteko ezin bestekoak diren mekanismoen garapena eta honen baieztapena aldarrikatzean datza.

Eskola erakuntza erak, gizartearen eskola izateen arabera-koak izan ohi dira beti. Batzuetan beste, gehien ezagutzen diren ereduak, hauek dira¹:

- **“borondatezko erakundea”**, izakunde pribatu eta gogorki autokorrak sortzean datza; bertanagintzen dutenek hezkuntza mota bat sortzen dutelarik, hala nola, giza talde egokituak eta elizak aukeratzeko duten metodoa dugu berau, heuren kultura birsortze-ko (...);
- **“aitatasun baitakoa”**, ongile batzu, gehiengoaren irakas-kuntzaz arduratzen dira, hauen menpekotasuna lortzeko helburuarekin, noski. Eredu honen, une garrantzitsuena, oinarriko ahalmen batzuren definizioan datza (irakurri kalkulatu, ...), beste batzuetan alderantziz (lankidetasuna, eredu heuristikoak, ...).
- **“lekukotasun demokratikoa”**, eskolak administrazio zein hezkuntza arlotik, tokian tokiko aginte politikoak zuzentzen dituzte, eta estatuaren eginkizuna, gutxiengo lan “standar” batzuk errespetatzearen ardurara mugatzen da;
- **“zentralizaturiko eskola estatala”**, estatu berrikoien ereduak dugu hau. Estatuak, aginte guztiaz egiten da eta eredu administratibo batzuetan erabiliz, eskolen funtzionamendu eta izatez gain, aurretik ezarritako arau agiri edo kanonekin, erlazioa bermatuko du.

1.1.1. Hezkuntza eta Eskola

Parsons, erakuntza teoriarik ospetsuaren hitzetan eskola, beste ezaugarri batzuetan alderantziz, eta erakuntza bezala harturik, xedearekiko norabidean nabari da, giza egituraren diharduten beste erakundeengandik ezberdinduz.

Jakina da, eskolaren xedea eta bere erakuntza egitura atzematea, ez dela gauza erraza; alde batetik kanpo eragina handia delako, eta gizarteak zehaztuarazi egiten duela eskola egitasmoa, bestetik berriz, askotan gizarteak ezusteki egiten dituelako eskolaren izate bereziak eta berekoiak.

Debessen² ustetan, hezkuntzaren eboluzioa eta eskolaz hiztegitakerakoan, bi hastapenetan firratzen ohi gara:

1. Hezkuntza, beste edozein arazoiez gain, izakunde pedagogiko eta uste ezberdinen eboluzioa eta giza eraginaren ondorioz eraiki edo eta.
2. Gizartearen beharrak eta errealitateak hezurdukatu dutela uste dutenak, eta ez hezkuntzaren inguruko lorpenak edo banakozale azalpenak, (Kent, Herbart, Stuart Mill eta Spencerekin uste zuten bezala).

Durkheimen³ ustetan, hezkuntza, belaunaldi zaharrek, gazteen gizarteratze arduratzean egiten dena da, eta eskola, “giza mikrokosmosa” bezala ikusiko du.

Azken ikerketa batzuen ondorioz, eskolak gizartearekiko independentzia izan behar duela diote, bere barne logikan eta bizi propioetik datorkiolarik. Eskolaren askatasuna helburu eta xedearekiko, gizartearen ideologi politiko eta ekonomikoetik urrun, bere barne prozesuak norabidetzeko legoke.

Dena dela, oro bar, eskola erakuntzak bete behar dituen kanpo eta barne baldintzak, hezkuntza hitzaren ingurutzat datozko.

Hezkuntza, “sistema”³ bezala ulertzea eta aztertzea, behar beharrezkoa da.

Hezkuntzaren kontzeptura hurbiltzen garenean, zenbait zailtasunekin topo egiten dugu. Hitz honen esanahia modu askotara, bildurik aurkitzen dugularik:

- hiztegi,
- lexiko,
- teori,
- ezarpen (aplikapen),
- ikerlan,
- guztiek ulertzen dugun era arruntean,
- orokorrean,
- liburu eta
- aldizkarietan ... abar

beraz, hezkuntzaren esanahia hurbiltzea, eta zehatz-mehatz, bapatean atzematea ez da gauza erraza. Ikus ditzagun zenbait definizio:

1. Hezkuntzaz oro har giza talde guztiak, bere izatea garatzeko, bide batez, taldean sartu eta gizabanako berezi bezala zehazteko eta elkarrekin ondare kulturekin bat egiteko, ematen den prozesuari deitzen zaio⁴...

2. Hezkuntza, gizakiek, bereziki, nabarmen eta ikur nagusia duten hezkuntzaren bidez, pentsamendua aberastu, bizkortu eta sendotzeko egiten den (nahitako asmoen ekintza) ahalegina dugu⁵.

Azalpen hontan, hezkuntza eta hezkuntzaren arteko zeri-kusiak sumatzen ditugu.

3. Hezkuntzak, gizaemakumeak, arlo moral, afektibo, fisiko zein intelektuala eta jakintza eboluzioaren garapenean engaiarazten ditu. Irakaskuntza funtsezkoa izan arren hezkuntzari, bere izaera orokorragoatik bereizi daiteke⁶.

4. ... Guzti honez gain, kultura talde baten erabiltzen diren hezkuntza bitartekoak beharrezko baldintza dira talde horren izatea zihurtatzeko, eta ondorioz irakaskuntzaren bidez komunikatu ahal izateko.

... Hezkuntza prozesuaren barne, hezkuntza gaiaren burutzapenean, hezkuntza duen partizipazioaren neurrian, erabiltzen da hezkuntzaren funtzio eragilea⁷.

3. Ikus:

a) *Léxicos de ciencias de la educación. TECNOLOGIA DE LA EDUCACION SANTILLANA.* (1991). Santillana Madrid (1. or.).

b) KRUTWIG, F. (1978): *Galaxia*. Txertoa. San Sebastián. (89/114. or.).

d) UNESCO (1979) *El enfoque sistémico del proceso educativo.* Anaya Madrid.

4. Op. cit. KRUTWIG, F. (1978).

5. CERAP (1989): *Centre d'Etude et de réflexion pour l'Action politique: Un projet éducatif pour la France.* Presses Universitaires de France. Paris.

8. MIALARET, G. (1984): *Diccionario de ciencias de la educación Oikostau*, Barcelona. (164. or.).

7. SPECK, J. eta WEHLE, G. (1981): *Conceptos fundamentales de Pedagogía. Lenguaje IV: Las funciones del lenguaje en la educación.* Herder. Barcelona, (409-432 orr.).

1. KATZ, M. (1971): *Class, Bureaucracy and Schools ...* Ribolzi, L. (1968): *Sociología educacional y escolar.* Narcea, Madrid, (70. or.).

2. DURKHEIM, E. (1990) *Educación y sociología.* Península, Barcelona Debese, M. (5-9 orr.).

Hezkuntza, eskolaren zentzutik hartuta, Pedagogia hitza etortzen zaigu. Alkarren artean duten aidetasuna ezinbestekoa delarik.

Pedagogia zer den jakiteko⁸, hezkuntzaren alorrera jo behar dugu. Hezkuntzaren zentzu zientifizaleak, pedagogiaren zereginetara hurbiltzen gaitu.

Ohizko ikuspetik, Pedagogia hezkuntzaren artea eta bere teknika bezala ulertu zen. Azkenik, pedagogia "hezkuntzaren zientzia" bihurtu zelarik, hezkuntzaren egite eta ihardukera sakona ikertuz.

Ibilbide honen pare, eskola, hezkuntz toki bezala, gizartearen hedatzen hasten da, hezkuntzaren lan gaia eta izatea gorendu nahirik. Pedagogia, alde, pixkanaka, sistematizatu eta eratzen zijoan hezkuntz beharren arabera.

Bataz beste, Pedagogia —zientzia, teknologia, praxiologia — eta Hezkuntza —egite, errealitate, ihardukera/ekite, teknika —zehatza bezala bereiztea egokia denez⁹.

Hezkuntza, gizartearen ikuspegitik hartuz gero, gizabanakoaren "gizarteratze" hitzaren ingurutik ikus daiteke, bere esanahia honela ulertzen delarik: gizataldebatek, belaunaldi berriei, aurreko eta oraingoekin bazkidesunean bizi dituzten balore, arau eta jarreraren igortze prozesua.

Beraz, esan dezakegu, hezkuntza eskolan, alde formal eta izakundetuz arduratzen dela, hezilari eta ikasleen arteko hartuemanak inplikaturik, alde batetik, norberaren kontzientziak eta bestetik, gizarteratze hitzaren inguruan dihardu. Honela izanik, hemen, hezkuntzak, nahikotasun eta kontzientziaren hitzak eskatzen ditu.

Gizarteak eskolari, hezkuntza egiteko baimena ematen dio, honegatik askotan, izakunde hauek hartzen duten garrantzia.

Eskola, hezkuntzaren ahalegin berria bezala ikusi behar da, hezkuntza ez formalek formaleraino dagoen urratsa, gizarteak ordezkaturik, nahita eta sistematikoki garatzen den funtzioa. Hezkuntz formala, izakundeetan egiten dena, estatuak sortu ziren unetik antolatua izan da. Bertan ematen den hezkuntzak funtzio berezia betetzen du, alegia: talde kultura baten baloreak igortzea, gizarte "ez formalak" hezkuntza izakundetuaren alde egm zuen apostua. Hasiara batean¹⁰, ustez, pertsonai egoki batzuren prestaketak norabide eta sakontze bat eskemiko zutelarik. Baina estatuen sortzean, hezkuntzatik aparte, beste sistema batzuren beregituraketak ere ematen dira: ekonomian eta politikan, hain zuzen ere.

1.1.2. Hezkuntza eta Gizartea: Hezkuntz soziologia

Hezkuntza eta eskola ikusterakoan, "pedagogia" hitzarekin topo egiten badugu, hezkuntza eta gizartea aztertzerakoan, "hezkuntz soziologiarekin" aurkitzen gara.

Hezkuntz soziologia, soziologiaren baretik sortzen den adarra dugu, soziologo eta hezilarien etsipen baten inguruan, hots: hezkuntz prozesuaren arreta jar ezker, gizarte hobegoa ereiki dezakegularen ustetan. Beraz, hezkuntz soziologia oso eginkizun pragmatikoetatik abiatzen da, eskolarako, gizarte-hezkuntzatik eskuhartze egokiak bilatzeko asmoz, beti ere, pedagogiaren egin nahietatik oso hurbil.

Zientzia honek, honela mugatzen du bere iker eremua: gizabanako eta gizartearen arteko zerikusietan proiektaturik, kondaira une batean, giza sistema kultura batek aukeratzen duen edo gogoko duen hezkuntz proiektu bat gizartearen uztartzen. Izan ere, hezkuntz garapena ez da hutsean gertatzen den zerbait, baizik eta edozein gizarte atalen barnean saiesturik agertzen zaigun ekintza mota dugu.

Hasera batean, hezkuntz soziologiaren kezka nagusia, hezkuntz sistemaren balioa frogatzea zen:

1. gizarte prozesuaren joanean, eta
2. beste giza azpisisistemekin (ekonomia, politika eta kultura) zituen erlazioak azterturik.

Urrengo hurrats batean, hezkuntz soziologia, erizpide teorikoagoan eta bere zerikusi zuzenaz arduratzen hasten da, Une honetan, Cesareok¹¹ bost lan arlo proposatzen ditu hezkuntz soziologiarentzat:

1. hezkuntz sistema eta giza egtura;
2. hezkuntzasunaren giza mugatzaileak;
3. eskola izakundeak;
4. irakasleak;
5. eskola eta hezkuntzaren ondorioak.

Antzeko sailkapena dugu, Floudek 1962-an egiten duena.

1.1.3. Hezkuntzaren errealitatea

Eskolaren jatorriaz arduratzeak, hezkuntzaren errealitatez jabetzea eramango gaitu.

Eskola, giza sistemaren arlo bat dugu, eta azpisisistema bat bezala eratu eta planifikatu dezakegu. Hau egiteko eskolak, gizartea¹² argi ezagutu beharko du, eta bien arteko lokarri den, hezkuntzaren errealitatez hausnarketa suposatuko du, hots:

1. Eskola ez da betidanik dihardun zerbait, gizarteak altxatu duen izakundea baizik. Esan ohi da, gizartearen hazitze eta korapilte prozesuak bultzatu duela bere sorrera. Bertan, helmuga sozial zein gizabanakoarenak lortzeko egiten da lan, eta bere izaerak, nonnahi izanik ere, gizartearen ondare kulturala, egitura, politikoa eta ekonomikoa azaltzen du.

Betidanik diharduena gizarteetan hezkuntza eta gizarteratze prozesua da, eskolak Sorokinek¹³ eta beste askok dioten eran "gizabanakoaren aldaketaz gain egituren egonkortasuna bermatzen dute", edo Trillas¹⁴ jarraituz gizar-

8. IKUS, LARROSA, J. (1990): El trabajo epistemológico en Pedagogía, Capítulo 1. PPU. Barcelona.

9. SANVISENS, A. (1987): Introducción a la pedagogía, Barcenova. Barcelona. (6 or.).

10. Ikus:

a) REIMER, E. (1981): La escuela ha muerto, Guadarrama. Madrid.

b) ILLICH, I. (1974): La sociedad desescolarizada, Barral. Barcelona.

d) ARENDTH, J. (1973): La crisis de la cultura, La crisis de la educación. Galmart París.

e) MEAD, M. (1972): Educación y cultura. Laídos. Buenos Aires.

f) CHANAG-GILCHRIST, L. (1981): Para que la escuela. Cincel-kapelusz. Madrid.

11. CESAREO, V. eta beste batzu. (1972): Op. cit. Ribolzi, L (1988), (28 or.).

12. SCHUTZ, A. (1974): El problema de la realidad social. Amorrortu. Buenos Aires. 3. Zatia "Símbolo, realidad y sociedad" (195-316 or.).

13. SOROKIN, P. (1965) op. cit. Ribolzi, 68 or. (La mobilité sociale Comunità. Hillan. Ribolzi, L. (1988): La sociología educacional y escolar Narcea. Madrid op. cit. (68, or.) itzulpena atzean).

14. TRILLAS, J. (1977): La educación fuera de la escuela. Planeta. Barcelona.

teak "sortu" dituen bezalaxe bere etorkizuna asmagarria ez denez, gizarteak desager ditzake.

2. Hezkuntza, eskola egituratik kanpo, gizartean beste era eta leku askotan agertzen den errealitatea da.

Gauza bat da, hezkuntzaren maila eta antolaketa formalez hitzegitea (herrialdeen arabera, aldakorra) hau da, diakronikoki eta beste bat, hezkuntzaren egoeraz hitzegitea, beraz sinkronikoki¹⁵.

Hezkuntzaren errealitate formal mota hori, eskola¹⁶ egituran antolatzeko onartzen da. F. Rodríguez Bornaetxeak¹⁷ dion bezala, eskola:

a) hezkuntzaren igortzerako propioki antolatzen da.

b) hezkuntza eguneroko bizitzatik bereiztuz berezko eraz horniturik testuinguru batetan garatzen da, eta

d) gizarteak bere gain hartzen du.

Bestalde, orain dela gutxiarte, izakundetu gabeko hezkuntzaren errealitatea, teorikozaleengandik behinpein, ez zen hezkuntza bide bezala hartzen. Eskolatik kanpo egin zitezkeen ekintza hezgarriak ez ziren aintzakoz hartzen.

Gaur egun, erakunde, ikerlari, teorilari zein zientzi ezberdinen ikuspegiak izan: UNESCO; Bowen, J. eta Hobson, P. R.; Coombs, P.H.; Trillas, J.; Owens, E.; Nohl, H.; Colore, A.; Leach, E.; Sanchez Carrión J. M.; Oteiza, J.; Bernstein, B. (...), guztiak ados daude esatean, hezkuntzaren errealitatea ez dela eskola eremura mugatzen baizik eta "formarik gabeko hezkuntza" eta "hezkuntza ez formala" ikastetxetik kanpo egin diren hezkuntzala mota direla.

Hezkuntzaren izakunde eza, ekonomiaren¹⁸ baldintzatik, gizarteari suposatzen dion mugaketagatik, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari da. Eskolak, gizarteak pairatzen dituen aldaketak uste bezain egoki eta nahi bezain azkar ez dituelako bere gain hartzen, eta korapilo asko sortzen dituen lotura denez (eskola-gizarte) ..., gizarte "garatu" deitzen ditugun horietan, zenbait talde heuren haurren hezkuntz ardura, eskolatik kanpo, bideratzen hasi dira...²⁰. Ez dira ezezagunak eskolaren heriotzaz eta suntsitu beharrez hitzegiten dutenen uste eta arrazoiak (Reimer, Chanag-Gilchrist, Illich, ...).

Hezkuntza eta euskal irakaskuntza berriz, hezkuntzaren isurtze berri baten beharrea aurkitzen dira. "Hezkuntzaz, euskeratik eta hitzun osoengandik gizabanakoa errealitatearekin eta gizartearekin osatzeko egin behar den ahalegina ulertzen dugu"²¹

"Munduko hezkuntzaren" eta "hezkuntz sistemaren" erortzea delata ahoz aho dabilen ezbaia dugu; bai giza-ekonomia,

hezkuntz-heziketa arteko egoeratu ezinaren desorekatik; zein gizakultura, ekonomia, giza populazioaren joan etorri, aldaketa sakon eta abarreatatik, gauza da, hezkuntzaren errealitateari, etorkizuna begira jarriz, gain hartu beharreko arazoa bihurtu dela, eta bere osotasunean ikertzea eskatzen duela.

Azkenikz esan, errealitate hitza inguratzean sortzen den kaxa, hezkuntza gizartean edo munduan dabilen legetara murgiltzea ez litzatekela, baizik eta gizadiaren eta gizakien lege naturaletik hurbil egotea eta bere bidetik ibiltzea²².

Bestalde, hezkuntza, zientziaren paradigmatetik landu beharra dago eta bien artean euskal hezkuntzarekiko, teori empirikoen bidea urratu behar dute, F. Krutwigek²³ dioen eran, alde batetik gure herria betik irudimena eta sormenara bidez eraiki delako, guk gure esperientziaren bidez behatzen dugunaren ezaugarri baliatuz, eta beste alde batetik, euskaldunak Europako "kultura empiriko" sortzailetariko herri megalitikoaren ondare bakarrak geraldako.

Errealitate hitz hau, sakontasun osoz mugatu ahal izateko oso erakargarria da hainbat hezilari, soziologo, psikobiologo, ... eta abarrek argitaratu dituzten lanak ezagutzea, besteak beste: Schutz, Husen, Varela, Maturana, Luckman eta Habermans²⁴, (...).

1.2. ESKOLA ERAKUNTZA INGURUAREN TEKNOLOGIA: HEZKUNTZ SISTEMA

Eskola erakuntzaren aldagai bat da, hezkuntz sistema, eta garrantziduna hain zuzen ere. Aldagai hau teknologiko ulertzea, bere eraginez sortzen diren aldaketaz arduratzea da, eta ez bitarteko —mozkin— prozesu eta teknika bezala erabiltzea. Beraz, guk eman nahi diogun zentzuan behintzat, hainbat urrats garatzea suposatzen du²⁵:

- iturburuen araketa;
- edukien egituraketa (kulturalak, zientifikoak, teknikoak, artezkoak);
- albistearen elaboraketa eta kodifikapena;
- jarrera ereduen aurkezpena eta arautegia;
- ezagutza horiek eskatzen dituzten erantzunkizun kulturala eta soziala.

22. SANCHEZ CARRION, J.M. "Txepetx". "La teoría social de las lenguas y su aplicación a la recuperación del euskera". Actas del II congreso de Lingua Galego-portuguesa (1987): AGAL. Orense (1989): (603-703. orr.) eta (1987): Un futuro para nuestro pasado. "El equilibrio eco-lingüístico". Gráficas Lizarra, Navarra. (331-340 orr.).

23. op. cit. KRUTWIG, F. (1979) garaidea. "cientifismo", (101-113. orr.).

24. Ikus:

a) HABERMANS (1989): El discurso filosófico de la modernidad. Taurus, Madrid (17 orr.).

b) SCHUTZ, A (1962): El problema de la realidad social. Amorrortu Buenos Aires.

d) MATURANA, H.R. eta VARELA, F.J. (1990), El árbol del conocimiento. Debate, Madrid, "Dominios lingüísticos y Conciencia humana". IX. atala (177 orr.).

e) HUSEN, T. (1978): La sociedad educativa. Anaya/2 Madrid, "Utilización de la teoría de sistemas en las ciencias sociales aplicadas". (203/205. orr.).

f) LUCKMANN, T., SCHUTZ, A. (1973) Las estructuras del mundo de la vida. Amorrortu, Buenos Aires.

25. Léxicos de Ciencias de la Educación: Tecnología de la educación. (1991). Santillana, Madrid, (446-495. orr.)

15. SANVISENS, A. (1987): Introducción a la Pedagogía. Barcanova Barcelona "El concepto de educación" (7-14 orr.).

16. Op.cit. Tecnología de la Educación (1991). (218. orr.)

17. RODRIGUEZ BORNAETXEA, F. "Egungo sistema Eskolarraren erakuntza eta Euskal Eskola Publikoari buruzko proiektuak direla-ta, egin beharreko oharpenak": HIZKUNTZA/HEZKUNTZA (1990) Encuentros sobre lengua y educación EHU, Bilbo, (141 orr.).

18. RODRIGUEZ BORNAETXEA, F.: "Formarik gabeko heziketa eta euskararen berreskurapena Euskal Herrian." TANTAK, EHUko Hezkuntz aldizkaria (1986), 4 zk.

19. Ikus RIBOLZI, L. (1988): op.cit. (77-79. orr.).

20. Ikus ESCAMEZ, J. eta beste: Pedagogía sociopolítica. Revista española de pedagogía XLVI, 181, (455. orr.).

21. SANCHEZ CARRION, J.M. "Txepetx". "Los espacios de la desigualdad: Patología social y conciencia lingüística". HIZKUNTZA/HEZKUNTZA, (1990). EHU. Bilbo (44. orr.).

Bestalde, zentzu arruntenean, hezkuntz sistemak hezkuntza nazionala adierazten dute, hots: Ipar Ameriketako H.S.; Noruegako H.S.; Britania Handiko H.S., (...) abar. Hezkuntz sistema, giza sistema baten hezkuntz proiektua izaten da.

Hezkuntz garapena, gizartearen barnean, bere osotasunean ematen den fenomeno dugu ez eta hutsean gertatzen den zerbat, askoren ustetan dirudien bezala. Beraz, hezkuntz sistemen jatorria, denbora eta lekuen arabera aldatzen da.

Gizarte bateko, hezkuntz "formalaren" asmo nagusiak, hezkuntz sistematan jasotzen dira; bertan, hezkuntz filosofi baten ildotik; helburu eskakizun, antolaketa, egitarau, metodologia eta ebaluaketari buruz, indarrean dauden jarrera eta izakundearen arabera marrazten da, eta herri bateko balore zein botere indarrak nabarmentzen.

Garbi agertzen zaiguna, giza eta hezkuntz sistemaren arteko erlazioa da. Honen inguruko ikerketak, bi eremu bereiztera eramango gaituzte:

1. giza eta hezkuntz sistemaren arteko erlazioak, eta
2. hezkuntz sistema beraren barnekerketak, eskola izakundearenak bereziki

Hezkuntz sistema ez da gizartearen diharduen azpistema bakarra, bere inguruan, handigo edo txikigo diren politika eta ekonomia azpistemak ditu. Beraz, derrigorrez, hezkuntz sistema bi ikuspegi arabera aztertua izan beharko da:

- a) bere baitan, giza sistema oso eta txiki bat bezala,
- b) beste sistemetan duen partaidetza bailitz, bere ekintza eta beste azpistemeena loturik daudelako neurri hatean.

Gizarte baten diharduten azpistema motak, ongi ulertzeko eta gizarte horren etorkizunez hitzegin ahal izateko, ez da nahiko, azpistema bakoitza bere aldetik aztertzea.

Sistema eta azpistema arteko hartuemanak elkarekintzaren ezaugarria dute funtsean. Beraz, hezkuntz sistema bat diseinatu eta egiaztatzeke, ezinbestekoa da, giza sistema osoa kontutan izatea eta bertako partaide diren guztiekiko teori orokor bat frogatzea.

Torsten Husenek²⁶ diona, giza sistema batzuren sistema teoriaren erabileraz, aurrekoen adierazgarri dugu:

(...) araukuntza mailan arazoak/gaiak, eremu ezberdinetako zentzuan ikertu, sistemen arteko hurbiltasunak landu eta koordinatu, arazoak hartzeko edo aurkezteko estrategi egokien jatorria bilatu eta guztia bideratzeko, ikuspegi zabaleko ikerlan talde bat behar da (...).

Bestalde, nola ulertu hezkuntzaren eginahaletik, gaurko gizartearen zintua den teknologia eta berrikuntza/aldaketa, hitzen eragina? Hezkuntza ekialaztea, aurreste batzuetatik abiatzea suposatuko du, hots:

- gizartearen egitura eta eraketak
- materialak,
- giza baldintzak,
- baloreak eta
- harremanak, eta

aldakorrek direla jakin beharko da, hain zuzen ere. Orohar, gizarteko aldaketak, giza sistema zein gizabanakoengan etengabeko adaptaketa eskatzen dute.

Bestalde, eskola, giza sistemaren kultura garatzeko altatu den izakundea denez, gizarte aldakor horrekiko, zenbait helburu orokor bete beharko ditu:


1. ikasleengan, etengabeko hezkuntz prestaketarako ahalmena heziz;
2. giza harremanen garrantzia, adierazbide bihurtuz;
3. nonnahitik datozkigun albiste iturrien jatorria bereizten eta harremanen bidez lantzen, aldeberean, norberaren "a priori" gogoratuz, sendotuz eta
4. testuinguru berezi, bitxi edo ezberdinetako joan-etorri aldakorretara moldatzeko gaitasuna heziz.

Hezkuntza, gizartearen arabera izaten da. Hezkuntz sistema, eskolaren ihardukera arautzeko prestatzen den agiria dugu ildo hau jarraituz, euskal hezkuntzaren "egoera" aztertzeko orokorrean, Parisko CERAP²⁷ erakundeak, Frantziako giza hezkuntz proiektuak egiten dituen zenbait burutazio oso baliagarriak deritzogu, guretzako, eta bereziki hezkuntz sistemari dagokionak, besteak beste:

1. Hezkuntza eta hizkuntz sistemen jatorriz eta beharrez mintzo direlako.
2. Heuren eginahalen azterketa egiten duelako.
3. Ondorioak baliagarriak direlako beste edozein herrialdetan aztertzeko.

Oso kontutan eduki behar dugu, hezkuntza eta eskolaritate ez dela gauza herria, Giza eskolaritate bideratzeko sortu izan ohi den agiria "Hezkuntz Sistema" deritzaio. Bainan gu galdetu beharko gara zera da: zer dio hezkuntz sistema agiri horrek eta nola hezurduzaten da?

Hezkuntz sistema baten eraketa jarraitzeko ezin besteko dugu kulturaren eremura jotzea. Kultura fenomenoak garatzeko erabiltzen duen bidea eta hezkuntz sistemak ibili behar duena gauza bera dira. Ikus dezagun grafiko baten bidez dioguna:



(2. grafikoa)

Banan bana ikusiko ditugu:

1. HIZKUNTZA. Hezkuntz sistemaren eta kulturaren lehen eginbeharra hizkuntzan oinarrituz, bera finkatzea da, "EZ dago gizarterik ez eta kultura elkarterik hizkuntza berbera baten jabe ez direnik, bere aberastasun eta bihurrikeri osoan, pentsamentua azaltzeko zein mundua adierazteko, ahalmena

26. HUSEN, T. (1978) La sociedad educativa. Anaya 12. Madrid, (204. or.).

27. op. cit. (1989).

ez dutenik²⁸. Hezkuntz sistemak dagokien gizartearen arabera bereizten dira, baina guztien lehen eginkizuna pentsamentuari loturik dagoen hizkuntzaren egituraketa eta aberastasuna bermatzean datza. Hau horrela dela begibistakoa da, ikusi besteriz ez ditugu egin behar zenbait herrialdeetako hezkuntz sistemak Arazoak orde geopolitikatik, soziolinguistikatik eta kondairatik sortzen dira.

Honetaz jabetzeko CIEMENek²⁹ argitaratuta duen Europako hizkuntz mapa ikusi besterik ez dago, norberaren kultur elkarteari dagokion hizkuntza eta lurralde hortan dihardun hezkuntz sistema, askotan, ez direla bat etortzen, ikusteko alegia. Euskal gizartearen berriz, arazo hau, ez da txikia, bertan diharduten "bi" hezkuntz sistemak ez dutelako gure kultur elkartearen izatea eta etorkizuna, gaurko giza aurrerapenen arabera. Bermatzen, hain zuzen ere.

Oro har, hezkuntza hedatzea da, hezkuntz sistema baten arazoia, eta hau egitea pentsatzen erakustea suposatzen du. Pentsatzeko, lehen eta behin sentitzen ikastea ezinbestekoa da³⁰. Pentsatu berriz, gizakien ikur nagusia den hizkuntzaren bidez egiten da. Gizarteak, bakoitzak duen hizkuntzaren pentsatzen ikastea ezinbesteko eskubide naturala da, gizarteak ukatu ezina. Hizkuntza, gizarteak eratu dituzte eta ez aldearantziz³¹, kontrako eran jokatzea, errealitatearen aurka jokatzea da, indarkeriari atea irekiz.

Hezkuntzak, hezkuntz sistemaren bidez pentsatzeko zirrara hezi behar du, eta hori egiteko nahi ta nahiezko tresnaria eta bidea norberaren sentimendu askatasunaren heziketa da. Askatasuna zer den jakin erakutsi eta erabiltzeko norberari dagokion kultura hastapen arrunten jabetza izatea behar beharrezko da eta honetarako bi arlo mota jorratu behar dira, hots:

- a) ezagupen multzo edo "jakintza" trinkoak, eta
- b) hauei dagozkien bitarte tekniko zehatzak edo "baloreak"

Pentsamendu askea ez da bapatean edo bere kabuz sortzen den zerbait baizik eta bere eusgarria baloreak izanik, hauei esker, gehiago jakiteko zirrara eta motibapena sor daiteke. Beraz esan dezakegu, "hezkuntz sistema" batek ez diola bakarrik pentsamentuari pentsatzeagatik garrantzia eman behar baizik eta pentsamendu askea deritzogunari, non pentsamendua hizkuntzari loturik eta berau sentimendu multzo eta ekite berezi batzuri erantsirik dago bestela ez bait du ikaslea behar den indar eta kemenez hornituko, betirako, elbarri utziko duelarik. Aldez "hezkuntz sistema" batek diogun hezkuntza garatzen badu, gizabanakoak jasoko dituen ikasketei esker, bizitza, gizarte eta izadiaren ardura eta kezka hartu ahalko ditu bere gain.

Norberarekiko eta besteenganako maitasuna eta begirunea izateko, askatasunaz jabetu eta norbera sendotu behar da. Honela esan dezakegu HIZKUNTZA / SENTIMENDUA / PENSAMENTUA / ASKATASUNA laukotearen garapenari esker gizarte "osasuntsuak" ez eta "gaixoak" ereiki ahalko ditugula, banan banan nahitaezko aurrealdintza ditugarik.

Gizarteak gizarte, euskal irakaskuntzari lekiokien "hezkuntz sistema", gizarte osasuntsua bideratzeko eta garatzeko nahiko genuke. Hori lortzeko, esan, Txepetek³² hezkuntzari buruz dionarekin ados gaudela eta ukazineko hastapena dugula bide horretan sinistu eta jarraitu nahi ba dugu; holaxe dio³³:

"Hezkuntzaz, gizabanakoa errealitatearekin eta ez gizartearekin uztartzeko, euskeratik eta hitzun osoengandik mar txan jarri behar den ahaleginez ulertzen dugu. Hau da, gizabanakoak hezitzeko (era berean hizkuntzarekiko osatzen direlarik) ez giza sistemara moldatzeko, baizik eta giza aurrerapen zehatzaren norabidean aldatzeko gai izateko, Pentsamentuari soilik, garrantzia emango ez dion sistema bat, baizik sentimendu eta ekintzari ere bai, lankidetzaz norgehiagoketaren leku jarri, eta gizabanakoa bere ikasketa eta biziaren protagonista eginez."

2. KULTURA OROKORRA. Behin hizkuntza ikasi, sentitu, hitzegin, besteeri entzun eta ulertu, elkar hitzegin; hizkuntzaren gozatu, amestu, gertatu, bizi ... ondoren, "hezkuntz sistemaren" bigarren ahalegina, hezurdura den hizkuntza (pentsamendua + sentimendua + askatasuna) mamitzen lagunduko dion ezagutza multzo bat eskeintzea da, kultura orokorra³⁴ ulertzen dena, hain zuzen ere.

Kultura orokorraren osagaiak hauetxek dira:

1. gutxiengo eskakizunak guztiontzat,
2. hizkuntza bermatu,
3. teknika batzu eskeini,
4. gaitasun batzu hezi,
5. zenbait ezagupen lortu eta jabetu.

Kultura orokorra bai gizabanako bai gizarterako oso garrantzitsua da. Bapatean esateko, kultura orokorraren hedapena, oinarritzkoak, baina funtsezkoak diren ezagutzak, gehiengoari igorri eta hezitzean datza, jatorritzko hizkuntza erabiliz; ondorioz, hizkuntzaren bidez, gizabanakoak bere izateari dagokion sentimendu multzoa ekinez, pentsamendua hezi eta ereiki ahalko du, gehiengoentzat gutxiengo beharrak eta ezagutza multzoak hedatuz.

Kultura orokorra bere betebeharrarako erabiliko dituen teknikak, gaitasun batzuen trebekuntza lortzeko izango dira, besteak uste: irakurketa eta idazketa benetako espirituren izate zabala eta konprometitua zein epai gaitasuna lortzen lagunduko dute.

Kultura orokorra egiteak orde, ezagutza multzo batzu erakustea da. Badira, erraznamendu edo metodo bat eskeintzen duten ezagutza eta gai multzoak, eta badira ere zenbait ezagutza, bere edukien garrantziagatik erakutsi behar direnak. Lehenengo multzoa pentsamendu askearen funtsa da, beste multzoa, gai teknikoagoena da eta berez, ezagutza eta pentsamendu askea ereikitzeke hain oinarritzkoak ez direnak.

Bainan horretaz ohartzeak, ez du esan nahi ezagutza batek besteak baino garrantzi gehiago duenik, baizik eta

28. op. cit. CERAP, (1989) (30. or.).

29. "Centre International Escarré per a les Minorigs Eniques i les Nacions: aproximado a l'Europa de les llengües-Mapa, 1987.

30. OTEIZA, J. "Un modelo de hombre para el niño de cada país", J. UBALDE MERINOren liburutik: La psicología ante la física y la ecología.

31. Ikus SANCHEZ CARRION, J.M. Txepetx (1987) Un futuro para nuestro pasado eta "La nueva sociolingüística y la ecología de las lenguas" Homenaje a Aingel Irigaray, Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de Sección 'Hizkuntza eta Literatura', San Sebastián, (32-34 orr.).

32. Ikus "Txepetx" op. cit. HIZKUNTZA/HEZKUNTZA. (1990). (37. or.).

33. op. cit. (1990) (44. or.).

34. Ikus:

a) CERAP op. cit.

b) MINOT, J. (1970): L'entreprise education nationale Arnaud Colin Paris.

d) MONORY, R. (1987): Plan pour l'avenir de l'éducation nationale Ministère de l'éducation nationale, 15 decembre, Paris.

lehenetasun mailako ezagutza gabe, literatura, historia, filosofia³⁵ edo³⁶: hizkuntza, kultura, artea, sormentasuna ezingo dela gizar-te berdin, zuzena, askea, irekia, malgua ..., hau da osasuntsua, ereiki ahalko, baizik eta alderantziz primatzen diren baloreen gizar-tea izango deia bigarren mailako ezagutzak merkataritza, tratu, banka lehenetasun mailakoak ordezkatzeko jartzen badira.

Euskal irakaskuntzari hurbildu ezker, diharduten hezkuntz sistemekin, gure kultura taldeari dagokion lehenetasun mailako ikasketa orokorrak hedatzea ez du oso erreza ematen. Gure buru-tapen batzura, aipagarria deritot, Oteizak, alde batetik eta Txepetek bestetik diotena, kultura eta hizkuntza hitzegiterakoan.

“... oso eroso eta errea da esatea: hizkuntza dela dena Nere teoria kontrakoa da, erlazioa alderantzizkoa bihurtzen da arazoa ez da lehenengo hizkuntza itzultzea gizonari baizik eta hizkuntzari (gelditzen zaigunari) gizona itzultzea (ez gelditzen zaiguna, baldin zer bait gelditzen bazai-gu, baizik eta hizkuntzaren barnean geneukan gizona, oso osorik)... Bere baitan sendatzen ari den gizon honek, jakingo du nota berbereganatu hizkuntza, bere kulturaren, egilea den gizona, gure kultura tankerakoa³⁷.”

“... gure krisi guztiak gizonaren kultura politikarenak dira, mendeki sensibilitatean politikoaren berheziketarena, haur berriaren berirudimenarena euskeraz, eta honela ez ba doa lagundurik, euskeraz ez da bere kabuz bereskuraturiko³⁸.”

3. KULTURA BEREZIA Hezkuntz sistemaren hirugarren eginkizuna, kultura berezia gorenzearena da. Orokorrean esan daiteke, kultura berezia, derrigorrezko ikasketak bukatu ondorengo urratsari deitzen zaila, Unibertsitate eta beste izakunde berezien bidez lantzen delarik. Beraz, oso urrats logi-koa genuke berau, baina honetarako, hezkuntz sistemaren aurreko bi urratsak, hizkuntza eta kultura orokorrenak, bete betearen hedatu eta garatzen ez badira, kultura espezializatu-aren edukina ezingo da zinez landu³⁹.

Kultura berezian barneratzeko, dagoeneko ikasle ohi guz-tiak gutxiengo trebetasunak menperatu behar dituzte, hots:

1. Komunikapenaren oinarriak.
2. Nork bere iritzia agertzeko ohitura eta trebetasuna.
3. Azter gaitasuna eta zentzua.

Hiru gaitasun hauen garapena nahi ta nahiezkoa da, behar adinako onuraz kultura bereziaz jabetzeko, ondoren gizakiaren kultura ondarean parte hartu ahal izateko, eta, ahal den neurrian kultura hobetu edo gehitzeko.

Gure “hezkuntz egoeratik” aztertutik logikotasun hon ez da nabari, arrazoiak haurreko aroetako hezkuntz elkartean ez baino, diharditugun “hezkuntz sistemen” sustatzeko legedie-tan aurki ditzazkegularik⁴⁰.

Bestalde, “hizkuntzatik” begiraturaz, atal honen, kultura bereziaren, garapenerako oztopoak ulertzea, ez da zaila, Esan, nazioarte mailan hedatutaz jotzen diren hizkuntza ere askotan, hizkuntzaren nortasun hutsuneak bilatzen dituztela maila hau antolatu eta aurre egiterakoan, beraz euskeratik begiratu ezker, zer esanik ez!⁴¹ Oro har, maila hontan, sor-tzen diren arazoak hiru multzotan sailka ditzazkegu:

35. op. cit. CERAP (104. or.).
 36. op. cit. Txepetx HIZKUNTZA/HEZKUNTZA. (1990), (30. or.).
 37. OTEIZA, J. (1983) Quosque Tandem Colec. Auñamendi, 4. ed.
 38. op. cit. “Txepetx” HIZKUNTZA/HEZKUNTZA. (1990), (44. or.).
 39. op. cit. CERAP (1989) (104-108 orr.).
 40. Ikus: EGIN aldizkaria 92/11/14 “Profesorado propio”.
 41. op. cit. “Txepetx” (1987). “El equilibrio lingüístico” (91-105. orr.).

1. Ikasketa mota horien inguruko erizpideak direla eta ..., egun hezkuntzaren ildo nagusia, kuantifikazio hitzaren inguru-tik datorkigu. Beraz, gizar-te haundi, ezagun eta hizkuntz sen-dodunentzat, kultura bereziakiko ikuspegi kuantifikatua arriskutsua bada ... nola izan daiteke ona erizpide hau gu bezelako gizar-teentzat?⁴²

Zenbat eta giza errealitatek hurbilago egon, orduan eta gizar-te osasuntsuagoak eta ondorioz hezkuntz sistema ore-katsua izango da. Hau honela izateko, hezkuntz izateak, hezkuntz sistemari bi eratako helburuak jorratzea eskatzen dizkio: alde batetik “kuantitatiboak” eta bestetik kualitatiboak baina lehen motako helburuak ez du esan nahi; “nahasketa — sailkapen gabe— nolana—denok batera— ahalik eta gehien abar baizik eta kultura orokorren atalak diguna “gehiengoentzat gutxiengo beharrak hedatuz” eta kontrol gabeko zabalkuntza edo zenbakian bakarrik loturiko hizpidea, “askorentzat, baina ahal den bezala”.

2. Ikasketa berezien horien eduki arabera sortzen diren arazoak:

- Azalpen eta azterketa teorikoen balioa.
- Ikasketa hoinen uztarketa gizar-tean.
- Praktiken erabilpena, eremuak eta balioak
- e. a.
-
-

Azken baitan, gai berezi bakoitzaren epistemologi⁴³ ar-a-zoak dakartzan ondorioak:

1. Zein ote kultura ikasketa berezi bakoitzaren eremua, hitzez hitz harturik?
 2. Zein da kultura berezi horrek sortzen duen ezagutza-zen izatea?
 3. Zein da bere helburua eta azter maila?
 4. Zein da bere iker ahalera?
 5. Balore sistema nolakoa da?
 6. Kondaira eta gizar-tearekiko zer esana du?
3. Hirugarren multzoan kultura espezializatuari dagozkion betebeharratetik sor ditezketen arazoak ditugu. Urrats honek garatu eta kontutan izan beharreko alor garrantzitsuenak hau-txek ditugu, besteak beste:
- 3.1. Kulturaren promozioa.
 - 3.2. Giza funtzioa dela, ez ahaztu.
 - 3.3. Pedagogiaren funtziotik ez dela urrundu behar.
 - 3.4. Ekonomiaren errealitatearekin bat egiten duela.
 - 3.5. Ikerketaren garapena bermatu behar duela.

42. Ikus:

a) RUIZ OLABUENAGA, J. I. ISPIZUA, M.A. (1989): La descodificación de la vida cotidiana. Universidad de Deusto, Bilbao 20-21. orr.

b) GOETZ, J.P., LECOMPTE, M.O. (1988): Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa. Morata, Madrid, Prólogo y 37-56. orr.

43. Ikus:

a) LARROSA, J. (1990): El trabajo epistemológico en Pedagogía. PPU Barcelona.

b) VV.AA. (1984): Estudios sobre epistemología y pedagogía. Anaya. Madrid.

d) PIAGET, J. (1972): Naturaleza y métodos de la epistemología. Emecé. Buenos Aires.

BIBLIOGRAFIA

- Actas del II Congreso da Lingua Galego-Portuguesa Galizia (1987). AGAL. Orense (1989). J.M. Sánchez Carrión. "Txepetx".
- ARENTH, J. (1973): La crisis de la cultura. La crisis de la educación. Gallimart. París.
- CERAP Centre d'Etude et de reflexion pour l'Action politique (1989): Un projet educatif pour la France. Presses Universitaire de France. París.
- CHANAG-GILCHRIST, (1981): Para que la escuela, Cincel-kapelusz. Madrid.
- DURKHEIM, E. (1990): Educación y sociología, Península. Barcelona.
- EGIN egunkaria (1992 Azaroak 14): "Profesorado propio".
- EUSKO IKASKUNTZA. Cuadernos de Sección: Hizkuntza eta Literatura. J.M. Sánchez Carrión, "Txepetx".
- GOETZ, J. P.; LECOMPTE, M.D. (1988): Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa. Morata. Madrid.
- HABERMANS, J. (1989): El discurso filosófico de la modernidad. Taurus. Madrid.
- HIZKUNTZA/HEZKUNTZA, Encuentros sobre lengua y educación (1990): EHU. Bilbo. J.M. Sánchez Carrión. "Txepetx". F. Rodríguez Bornaetxea.
- HUSEN,T. (1978): La sociedad educativa. Anaya/2. Madrid.
- ILLICH, I. (1974): La sociedad desescolarizada. Barral. Barcelona.
- KRUTWIG, F. (1978): Garaldea. Txertoa. San Sebastián.
- LARROSA, J. (1990): El trabajo epistemológico en Pedagogía. PPU. Barcelona.
- LUCKMANN, T. (1973): Las estructuras del mundo de la vida, Amorrortu. Buenos Aires.
- MAPA Aproximació a l'Europe de les llengües (1987): CIEMEN, "Centre Internacional Escarre per a les Minorigs Etniques: les Nacions"
- MATURANA, H.R. eta VARELA, F.J. (1990): El árbol del conocimiento, Debate. Madrid.
- HEAD, M. (1972): Educación y cultura. Laidos. Buenos Aires.
- MIALARET, G. (1984): Diccionario de Ciencias de la educación. Oikos-tau. Barcelona.
- MINOT, J. (1970): L'entreprise education nationale. Arnaud Colin, París.
- MONORY, R. (1987): Plan pour l'avenir de l'education nationale. Ministaire de l'education nationale. París.
- OTEIZA, J. (1983): Quosque Tandem. Colección Auñamendi, 4. argital pena.
- PIAGET, J. (1972): Naturaleza y métodos de la epistemología. Emecé. Buenos Aires.
- REIMER, E. (1981): La escuela ha muerto. Guadarrama. Madrid.
- REVISTA ESPAÑOLA DE PEDAGOGIA, XLVI; nº 181. J. Escamez.
- RIBOLZI, L. (1988): Sociología educacional y escolar. Narcea, Madrid.
- RUIZ OLABUENAGA, J.I.; ISPIZUA, M.A. (1989): La descodificación de la vida cotidiana, Universidad de Deusto. Bilbao.
- SANCHEZ CARRION, J.M. (1987): Un futuro para nuestro pasado, Gráficas Lizarra. Navarra.
- SANVISENS, A. (1987): Introducción a la pedagogía. Anaya. Madrid.
- SCHUTZ, A. (1974): El problema de la realidad social. Amorrortu. Buenos Aires,
- TECNOLOGIA DE LA EDUCACION. Léxicos de ciencias de la educación (1991). Santillana. Madrid.
- SPECK, J. eta WEHLE, G. (1981): Conceptos fundamentales de Pedagogía. Herder. Barcelona.
- TANTAK, EHUKO HEZKUNTZ aldizkaria (1986). 4 zk. EHU, Donostia, F. Rodríguez Bornaetxea.
- TRILLAS, J. (1977): La educación fuera de la escuela. Planeta. Barcelona.
- UBALDE MERINO, J.: La psicología ante la física y la ecología, "Epilogo de Jorge Oteiza".
- UNESCO (1979): El enfoque sistémico del proceso educativo. Anaya, Madrid.
- VV.AA. (1984): Estudios de epistemología y pedagogía. Anaya, Madrid.